

Kartzelan nago, naute

Hona ekarri nau
nire askatasun egarriak.
Ez da nire ametsa
lau horma hauen artean
hormatua goiz batez
azken hatsa botatzea, ez.
Nire nahia,
nahi kuttunena
nire Herrian dago
nire Herrikide askeen artean.
Artean, hemen ere borrokan
kolokan nahi diagu jarri
paretetako hormigoi armatua.

Pitzatu arte ezin etsi.
Haiek ala gu,
zapalduak ala aske,
makurtuak ala zutik
ixilik ala oihuka.

Garbi dago:
Etsitzea hiltzea litzateke.

Kemena ahultzen da, bai,
baina txakurren gu makur-arazte nahia
indarra bihurtzen gudan.

Jipoiak ez ba du zerbait kraskatzen,
ez ba du gutariko norbait erahiltzen,
larrua, asmoak, askatasun egarria indartzen digu.

Gu erotu nahiean dabilta
zakur amorratuak...
sakabanatuz,
presaka elkarrengandik aldenduz...

Ez al dakite sagar ustelak garela?
eta gudan, elkarrekin edo banaka,
askatasun-pozoina,
bihotzean errotua dugula
mandaeulia mandoaren odolari
atxikitzen den lez?

Eta guk inoiz baino gehiago
zuek, anai-arrebok
behar zaituztegu
gure zilbor-eztea zarete
arnas-bolada indartsua.

Hori bai kate polita
elkar lotzen gaituena!

Zuen, gure, borrokan
ez etsi, eutsi!



Edu Zabala